

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa.—Jaurlaritzak, Industria eta Enerjia-Sailak eta Ekonomia eta Herriogasun-Sailak bakoitzak bere agintepideen hesparruan egindako saloz, Lege hau osabideratzeko eta egiteratzeko behar daitezen manu guztiak egingo ditu.

Bigarrena.—Lege honen Bigarren Erabaki Gehigarriaren 2garren zatian ohartemandako unean bertan Legebiltzarraren Azaroaren 18ko "Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntza-rako Aztertegia Sortaraztea" 11/1981 Legea baliogabetuta geldituko da, Erabaki Gehigarriaren 1 zatian zehazten diren Atalak salbu.

Hirugarrena.—"Ente Vasco de la Energía, S. A." sortarazteko Jorrailaren bosteko 81/1982 Dekretoa baliogabetu egiten da, eta Baltzu hori deuseztu eta horren ondarea, ogasunak eta eskubideak "Enerjiaren Euskal Erakundea"-ri emateko baita ematen zaio Jaurlaritzari.

Laugarrena.—Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

1955

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko LEGEA, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa.

Euskadiko Herri osoari, Legebiltzarrak Azaroaren 24ko 10/1982 "Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko" Legea, onartu duela jakinarazten zaio. Beraz, hori bete eta betearazi dezatela agintzen diet Euskadiko herritar guztiei.

Gasteizen, 1982garreneko Azaroaren 24an.

Lehendakaria,

CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Konstituzioak eta Autonomia-Estatutoak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dute euskeraren erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea, euskera Euskal Herriaren Kultura-Ondarearen funtsezko zati eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizial denez.

Helburua zera da: Euskera, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabilkeraren bidez, gizabanakoak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea.

Euskera Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, batagatik edo besteagatik hartaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 6garren Ataleko 3garrenak berariz dionez.

Hizkuntzari Euskal Herriko herrikide guztien baterapide denaren aitortpena egin ondoren, euskal herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak gure Lege-Antolapidez aratu beharra dago eta, batipat, hizkuntza ofizial bietan

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Por el Gobierno, a propuesta de los Departamentos de Industria y Energía y de Economía y Hacienda, en el ámbito de sus respectivas competencias, se dictarán cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley.

Segunda.—En el momento previsto en el apartado 2 de la Disposición Adicional Segunda de la presente Ley quedará derogada la Ley del Parlamento 11/1981, de 18 de Noviembre, de "Creación del Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero", a excepción de los artículos enumerados en el apartado 1 de aquélla.

Tercera.—Se deroga el Decreto 81/1982, de cinco de Abril, de constitución del "Ente Vasco de la Energía, S. A.", y se autoriza al Gobierno a proceder a la disolución de dicha Sociedad traspasándose su patrimonio, bienes y derechos al "Ente Vasco de la Energía".

Cuarta.—La presente Ley entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

1955

LEY 10/1982, de 24 de Noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 10/1982, de 24 de Noviembre, "Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera". Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, 24 de Noviembre de 1982.

El Presidente,

CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

La Constitución y el Estatuto de Autonomía confían a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y la normalización del uso del euskera considerando su doble dimensión de parte fundamental del Patrimonio Cultural del Pueblo Vasco y, junto con el castellano, idioma de uso oficial en el Territorio de la Comunidad Autónoma.

Se trata de reconocer al euskera como el signo más visible y objetivo de identidad de nuestra Comunidad y un instrumento de integración plena del individuo en ella a través de su conocimiento y uso.

El carácter del euskera como lengua propia del pueblo vasco y como lengua oficial junto con el castellano, no debe comportar, en ningún caso, menoscabo de los derechos de aquellos ciudadanos que por diversos motivos no pueden hacer uso de ella, conforme a lo establecido expresamente en el número 3 del artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Reconocida la lengua como elemento integrador de todos los ciudadanos del País Vasco, deben incorporarse a nuestro Ordenamiento jurídico los derechos de los ciudadanos vascos en materia lingüística, particularmente el derecho a expresar-

ihardutzeko eskubidea, eta hizkuntzarekiko babesaren bermea, Euskal Herriak gordetzen duen kultura-ondare baten funtsezko zati denez.

Legea gauzatzen duten guztizko oinarri-irizpideetatik abiatuta, Aintzin-Idazpuruak euskera Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen berenezko hizkuntza denaren aitopena egiten du, eta haren lur-mugartean euskera eta gaztelania hizkuntza ofizial direnekoa. Atal horretan bertan, hizkuntzagatikako bereizkeria galeraztan da.

Lehenengo Idazpuruak, herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubideak eta euskal Herri-Agintaritzak egin beharrekoak ditu gai.

Bigarren Idazpuruak Herri-Agintaritzaren ekintzak araupezen ditu. Bertako lehen-Atalburua Herri-Arduralaritzan euskera erabiltzeari buruzkoa da, Autonomia-Arduralaritzarekiko harremanetan euskera eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen delarik. Agiri-paperak herri-errolde-tegietaratzea ere araupezen da, aginte-araupideak edo erabakiak edo Arduralaritzaren egintza guztiak, baita mezuak eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan argitaratu beharko direla agintzen da. Zuzenbidea eragiten dutenekingo harremanetan herritar guztiei bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofiziala erabiltzeko esku ematen zaie. Autonomia-Elkarteko herrien eta orohar toki-izen guztien izen ofizialak finkatzeko ahalmena Jaurlaritzari, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeei edo Toki-Erakundeei ematen zaie. Kale-bidetango seinale eta iragarpenen idazkera araupezen da. Zinpeko itzultzaile-titulua lortu eta ematea araupezeko ahalmena Jaurlaritzari ematen zaio, baita itzultzaileen zerbitzu ofiziala sortaraztekoa ere. Herri-Agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizialak, baita Euskal Herritik abiatzen diren Herri-Garraioen zerbitzuak ere bi hizkuntzetan erabili beharko direla agintzen da. Herri-Arduralaritzari datxekon lanarigoa arian-arian euskalduntzea aintzin-ohartematen da.

Bigarren Atalburuak euskeraren irakaskuntzango erabilpena araupezen du. Aukeratzuz besteko hizkuntza ofiziala irakatsi beharra araupezen delarik, ikasle guztiek bere ikasketak euskeraz egiteko duten eskubidea aitortzen da. Jarri beharreko hizkuntza-ereduak araupezea, bi hizkuntza ofizialak behar hainbat ezagutzeko neurriak hartzea eta ikasketa-egitamuak elkarri egokitzeko Jaurlaritzaren gain uzten ditu. Irakasleak gaitezari buruzkoan, irakasleok euskeraz eta gaztelez erabateko gaitasuna lor dezaten, hauen ikasketa-egitamuak egokitzeko ohartematen da. Euskera ikasi beharrik ez izateko agiangor barkapenak ere ohartematen dira.

Hirugarren Atalburuak, albisteak euskeraz jaso ahal izateko eskubidea aitortzen duelarik, euskeraren adierazpideetan erabilpena araupezen du. Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera suztatzea eta EITB-n euskerari indar ematea eta irratigintzan, albistaritzan, irudiaren eta hotsaren irarpidetan etabar, euskera suztatzeako eta babesteko neurriak hartzea Jaurlaritzaren gain uzten ditu.

Laugarren Atalburua euskera gizartean eta erakunde-mailako beste alorretan erabiltzeari buruzkoa da eta garaadinekoei euskera erakustea eta euskeraz alfabetatzeko lana, maila ezberdinetan euskeraren erabilpena suztatzea Jaurlaritzaren gain uzten du eta, Lege honen erabilpena eta hedapena elkarkidetzeko, Jaurlaritzak harreman-sail bat sortaraziko duela ohartematen du.

Boskarren Atalburuan agizko euskera-idatzi ofizialaren batasun eta arauzkotasunaz arduratzeko lana Jaurlaritzaren gain uzten du.

se en cualquiera de las dos lenguas oficiales y la garantía de la defensa de nuestra lengua como parte esencial de un patrimonio cultural, del que el Pueblo Vasco es depositario.

A partir de los principios generales que informan la Ley, el Título Preliminar reconoce el euskera como lengua propia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el euskera y el castellano como lenguas oficiales en su ámbito territorial. En el mismo título se proscriben la discriminación por razón de la lengua.

El Título Primero trata de los derechos de los ciudadanos y los deberes de los poderes públicos vascos en materia lingüística.

El Título Segundo regula las actuaciones de los poderes públicos. Su primer capítulo se refiere al uso del euskera en la Administración Pública, reconociéndose el derecho al uso del euskera y del castellano en las relaciones con la Administración Autónoma. Se regula también la inscripción de documentos en los registros públicos, se establece la forma bilingüe para la publicación de las disposiciones normativas o resoluciones o actos de la Administración, así como de las notificaciones y comunicaciones. Se faculta a todo ciudadano para utilizar la lengua oficial de su elección en las relaciones con la Administración de Justicia. Se atribuye al Gobierno, Organos Forales de los Territorios Históricos o Corporaciones Locales, la facultad de establecer la nomenclatura oficial de poblaciones y topónimos, en general, de la Comunidad Autónoma. Se regula la redacción de señales e indicadores de tráfico. Se atribuye al Gobierno la facultad de regular la obtención y expedición del título de traductor jurado, así como la creación del servicio oficial de traductores. Se establece la forma bilingüe para los impresos o modelos oficiales a utilizar por los Poderes Públicos, así como en los servicios de Transporte Público con origen en el País Vasco. Se prevé la progresiva euskaldunización del personal afecto a la Administración Pública.

El Capítulo Segundo regula el uso del euskera en la enseñanza. Se reconoce el derecho de todo alumno a recibir la enseñanza en euskera, regulándose la obligatoriedad de la enseñanza de la lengua oficial no elegida. Se atribuye al Gobierno la regulación de modelos lingüísticos a impartir, la adopción de medidas encaminadas a la adquisición de un conocimiento suficiente de ambas lenguas oficiales y la adecuación de los planes de estudio. En cuanto a formación del profesorado se prevé la adaptación de sus planes de estudio para conseguir su total capacitación en euskera y castellano. Se prevén también posibles exenciones de la enseñanza del euskera.

El Capítulo Tercero regula el uso del euskera en los medios de comunicación, reconociendo el derecho a ser informado en euskera. Atribuye al Gobierno la promoción del euskera en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma y su impulso en la RTVE, y la adopción de medidas de promoción y protección del euskera en la radiodifusión, prensa, medios de reproducción de imagen y sonido, etcétera.

El Capítulo Cuarto se refiere al uso social y otros aspectos institucionales del euskera atribuyendo al Gobierno la enseñanza y alfabetización del euskera para adultos, el fomento del uso del euskera en distintos ámbitos, y prevé la creación, por el Gobierno, de un órgano de encuentro, para coordinar la aplicación y desarrollo de esta Ley.

En el Capítulo Quinto se atribuye al Gobierno el velar por la unificación y normalización del euskera escrito oficial común.

Erabaki Gehigarriak, Autonomia-Elkartetik kanpo egon eta euskerarekin zerikusirik duten ekintzapidetan ihardun diharduten iraskunde edo aginte-sailekin atxikipenak antolatzeari Jaurlaritzaren gain uzten du.

Aldibaterako Erabakiak, orain arkitzen garen egoeratik, Lege honen funtsa beste Lege eta Araudietan gauzatu artean araupidetza-hutsik gerta dedina galeraziz, Lege honen erabilpena eta hedapena bete-betekoak izan daitezeneko beste egoera batera aldatzea segurtatzen du.

Legeak Baliogabetzeko eta Azken-Erabaki bana sartzen ditu eta hoietan Legearen arauzko hedakuntza egiteko baime-na ematen zaio Jaurlaritzari.

AINTZIN-IDAZPURUA

Lehenengo Atala

Euskeraren eta gaztelaniaren erabilkera Lege honetan agindutakoari eta Lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako aginduei atxikiko zaie.

2garren Atala

Euskal Herriak euskera du berenezko hizkuntza.

3garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntza-ofizialak euskera eta gaztelania dira.

4garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Agintesailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dituzte.

LEHENENGO IDAZPURUA

ATALBURU BAKARRA

Herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbehar-
rrak hizkuntzaren alorrean

5garren Atala

1. Euskal Herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide.

2. Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-
eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatuta-
ko edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak
hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubi-
dea.

b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideeta-
ko emankizunak euskeraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko
ekintzetan euskeraz aritzeko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskeraz egiteko eskubidea.

3. Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan dai-
tezen, herri-agintesailek beroien erabilpena bermatuko dute.

La Disposición Adicional atribuye al Gobierno el estable-
cimiento de vínculos con las instituciones o poderes que,
actuando fuera de la Comunidad Autónoma, realizan activi-
dades relacionadas con el euskera.

La Disposición Transitoria asegura el paso de la situación
actual a otra en que la aplicación y desarrollo de esta Ley pue-
dan ser plenos, impidiendo que exista un vacío normativo en
tanto se plasme su espíritu en otras Leyes y Reglamentos.

La Ley establece también una Disposición Derogatoria y
una Final en la que se autoriza al Gobierno al desarrollo
reglamentario de la Ley.

TITULO PRELIMINAR

Artículo 1.º

El uso del euskera y el castellano se ajustará, en el ámbito
territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a lo
dispuesto en la presente Ley y demás disposiciones que en
desarrollo de esta Ley dicten el Parlamento y el Gobierno
Vascos.

Artículo 2.º

La lengua propia del País Vasco es el euskera.

Artículo 3.º

Las lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma del País
Vasco son el euskera y el castellano.

Artículo 4.º

Los poderes públicos velarán y adoptarán las medidas
oportunas para que nadie sea discriminado por razón de la
lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TITULO PRIMERO

CAPITULO UNICO

De los derechos de los ciudadanos y deberes de los poderes
públicos en materia lingüística

Artículo 5.º

1. Todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho a
conocer y usar las lenguas oficiales, tanto oralmente como
por escrito.

2. Se reconocen a los ciudadanos del País Vasco los
siguientes derechos lingüísticos fundamentales:

a) Derecho a relacionarse en euskera o en castellano oral-
mente y/o por escrito con la Administración y con cualquier
Organismo o Entidad radicado en la Comunidad Autónoma.

b) Derecho a recibir la enseñanza en ambas lenguas ofi-
ciales.

c) Derecho a recibir en euskera publicaciones periódicas,
programaciones de radio y televisión y de otros medios de
comunicación

d) Derecho a desarrollar actividades profesionales, labo-
rales, políticas y sindicales en euskera.

e) Derecho a expresarse en euskera en cualquier reunión.

3. Los poderes públicos garantizarán el ejercicio de estos
derechos, en el ámbito territorial de la Comunidad Autóno-
ma, a fin de que sean efectivos y reales.

BIGARREN IDAZPURUA.

Herri-agintaritzaren ihardunez

LEHENENGO ATALBURUA

Euskera Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko lur-eremu barruko herri-arduralaritzan erabiltzeaz

6garren Atala

1. Herritar guztiei, Autonomia-Elkarteko lur-eremuan Herri-Arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskera nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubidea aitortzen zaie.

Horretarako, behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebaztiko.

2. Norbanako batek baino gehiagok eskuhartu dezateneko zehaztapidetzan edo arazopideketan, haiek elkar hartuta aukeratu dezaten hizkuntzaz baliatuko dira herri-agintariak. Elkar hartzerik ez bada, zehaztapidetza edo arazopideketa hasitakoak nahi dezan hizkuntza erabiliko da, bi aldetakoek argipideak bere aukerako hizkuntzan jasotzeko duten eskubidearen kaltetan gabe.

7garren Atala

1. Autonomia-Elkartearen menpeko agiripaperak herri-erroldegetiaratzea, hauek nahiz Eusko Jaurlaritzarenak, bertako Erakunde Burujabeenak; Foru-Arduralaritzenak, Toki-Arduralaritzarenak, nahiz besterenak izan, egon daitezeneko hizkuntza ofizialean egingo da.

2. Autonomia-Elartearen menpeko ez diren herri-erroldegetietan, Eusko Jaurlaritzak, gaitasunaren jabe diren ihardutze-sailekin elkar hartuz, euskeraren erabilpena arazkotzea suztatuko du.

3. Hoiek erakusteko eta/edo hoiekiko egiaztapen-agiriak egiteko, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko edozein hizkuntza ofizialetarako itzulpenaren bermea emango da.

8garren Atala

1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein aginte-araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabal-kunde ofiziala egiteko.

2. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herri-agintariak eskuhartu dezateneko egingiza guztiak, eta bai arduralaritzaz eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu.

3. Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri-agintariak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dute.

9garren Atala

1. Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiak aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

2. Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritzaz-ihardunak, balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.

TITULO SEGUNDO

De las actuaciones de los poderes públicos

CAPITULO PRIMERO

Del uso del euskera en la Administración Pública dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Artículo 6.º

1. Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.

A tal efecto se adoptarán las medidas oportunas y se arbitrarán los medios necesarios para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho.

2. En los expedientes o procedimientos en los que intervenga más de una persona, los poderes públicos utilizarán aquella lengua que establezcan de mutuo acuerdo las partes que concurren. En caso de no haber acuerdo se utilizará la que disponga la persona que haya promovido el expediente o procedimiento, sin perjuicio del derecho de las partes a ser informadas en la lengua que deseen.

Artículo 7.º

1. La inscripción de documentos en los registros públicos dependientes de la Comunidad Autónoma, ya sean del Gobierno Vasco, Entes Autónomos del mismo, Administraciones Forales, Administración Local, u otros, se hará en la lengua oficial en que aparezcan extendidos.

2. En los registros públicos no dependientes de la Comunidad Autónoma, el Gobierno Vasco promoverá, de acuerdo con los órganos competentes, la normalización del uso del euskera.

3. A efectos de exhibición y/o de certificaciones, se garantizará la traducción a cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 8.º

1. Toda disposición normativa o resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, deberá estar redactada en forma bilingüe a efectos de publicidad oficial.

2. Todo acto en el que intervengan los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las notificaciones y comunicaciones administrativas, deberán ir redactados en forma bilingüe, salvo que los interesados privados elijan expresamente la utilización de una de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma.

3. No obstante lo preceptuado anteriormente, los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del euskera para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación socio-lingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos.

Artículo 9.º

1. En sus relaciones con la Administración de Justicia, todo ciudadano podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna.

2. Los escritos y documentos presentados en euskera, así como las actuaciones judiciales, serán totalmente válidos y eficaces.

3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien ihardutze-sailekin elkar hartuta, Euskal Herriango Epai-Arduralaritzan euskeraren erabilpena arauzkotzea suztatuko du.

10garren Atala

1. Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, jeografia-gorabehera, hiribide eta, orohar, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzeko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez.

Toki-erakundean eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.

2. Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolana ere nazioarteko arauari eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.

3. Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira.

11garren Atala

Euskal Herritik abiatzen diren herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako irarkiak, mezuak eta adierazpenak euskeraz eta gaztelaniaz egongo dira.

12garren Atala

1. Jaurlaritzak araupetuko ditu bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-tituloa lortzeko eta emateko baldintzak.

2. Halaber, itzultzaile-zerbitzu ofiziala sortaraziko du; hori Autonomia-Elkarteko herritarren eta Herri-Erakundeen esku egongo da, itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko.

13garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri-agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

14garren Atala

1. Lege honen 6garren atalean aitortzen diren eskubideak egiteratu daitezten, herri-agintariek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte.

2. Herri-agintariek erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea.

3. Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremuan-ago Arduralaritzako gainerako lantokietara sartzeko egin daitezten baztertze-indarrezko azterketetan, beste merezimenduen artean hizkuntza ofizialen jakintzamaile hartuko da kontutan; horren haztaketa lanbide-maila bakoitzerako egingo du Arduralaritzak.

3. El Gobierno Vasco promoverá de acuerdo con los órganos correspondientes, la normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en el País Vasco.

Artículo 10

1. La nomenclatura oficial de los territorios, municipios, entidades de población, accidentes geográficos, vías urbanas y, en general, los topónimos de la Comunidad Autónoma Vasca, será establecida por el Gobierno, los Organos Forales de los Territorios Históricos o las Corporaciones Locales en el ámbito de sus respectivas competencias, respetando en todo caso la originalidad euskaldun, romance o castellana con la grafía académica propia de cada lengua.

En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales reseñadas en el párrafo anterior, el Gobierno Vasco resolverá, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.

2. Las señales e indicaciones de tráfico instalados en la vía pública, estarán redactados en forma bilingüe respetando en todo caso las normas internacionales y las exigencias de inteligibilidad y seguridad de los usuarios.

3. En caso de que estas nomenclaturas sean sensiblemente distintas, ambas tendrán consideración oficial, entre otros, a los efectos de su señalización viaria.

Artículo 11

En todos los servicios de transporte público con origen en el País Vasco, los impresos, los avisos y las comunicaciones al público se harán en euskera y en castellano.

Artículo 12

1. El Gobierno regulará las condiciones para la obtención y expedición del título de traductor jurado entre las dos lenguas oficiales.

2. Asimismo, creará el servicio oficial de traductores, que estará a disposición de los ciudadanos y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, con el fin de garantizar la exactitud y equivalencia jurídica de las traducciones.

Artículo 13

Los impresos o modelos oficiales que hayan de utilizarse por los poderes públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán estar redactados en forma bilingüe.

Artículo 14

1. A fin de hacer efectivos los derechos reconocidos en el artículo 6.º de la presente Ley, los poderes públicos adoptarán las medidas tendentes a la progresiva euskaldunización del personal afecto a la Administración Pública en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. Los poderes públicos determinarán las plazas para las que es preceptivo el conocimiento de ambas lenguas.

3. En las pruebas selectivas que se realicen para el acceso a las demás plazas de la Administración en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se considerará, entre otros méritos, el nivel de conocimiento de las lenguas oficiales, cuya ponderación la realizará la Administración para cada nivel profesional.

BIGARREN ATALBURUA

Euskeraren irakaskuntzango erabilpena

15garren Atala

Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskeraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie.

Horretarako Legebiltzarrak, edo hala badagokio Jaurlaritzak, elebitasuna arian-arian Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko hezkuntza-erapidetza osora hedatu dedineko xedezko neurri egokiak hartuko ditu.

16garren Atala

1. Unibersitate ikasketetaraino eman dedin irakaskuntzan, aitak, kuradoreak edo hala egokituz gero ikasleak berak ikasketak egiteko aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala erakustea nahitaezkoa izango da.

2. Hala ere, Jaurlaritzak ikastegi bakoitzean erabili beharreko hizkuntza-ereduak araupetuko ditu, guraso edo kuradoreen nahia eta eskualdeko gizarte-hizkuntzazko egoera kontutan izanik.

3. Herri-diruzko laguntza hartu eta araupeko irakaskuntza Elkarteetan ofizial ez den hizkuntza bat oinarri dela eman ditzaten norbanako-jabetzapeko ikastegiei, euskera eta gaztele-ra nahitaezko ikasgai gisa emango dituzte.

17garren Atala

Jaurlaritzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabilzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaz emateko xedezko neurriak hartu eta euskera-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirietan euskera agizko adierazpide eginez.

18garren Atala

Irakasketa-egitamuak 15garren, 16garren eta 17garren ataletan jarritako helburuei egokitu zaizkie.

19garren Atala

Irakasleen gaikuntzarako unibersitate-eskolek irakasleak bere berarizkotasunak eskatzen duenaren arauera euskeraz eta gaztelez erabat gai izan daitezela lortzeko egokituko dituzte bere ikasketak-egitarauak.

20garren Atala

1. Jaurlaritzak, irakaskuntza euskeraz hartzeko eskubidea egiteratzeko, irakasleak arian-arian gehiago euskalduntzeko bideak jarriko ditu.

2. Halaber, eta Lege honen 15garren eta 16garren ataletan oharmandakoa betetzeko, euskeraz jakitea nahitaezko izango duten lantoki edo irakaskuntza-gelak zehaztuko ditu.

21garren Atala

Bere ikasketak Euskal Herriko Autonomia-Elkartetik kanpo hasita euki; edo bere ohizko egoitza Autonomia-Elkarteetan ez dutela egiaztatu dezaten ikasleei, euskera ikastea barkatu ahal izango zaie, horretarako jarri daitezen modutan.

CAPITULO SEGUNDO

Del uso del euskera en la enseñanza

Artículo 15

Se reconoce a todo alumno el derecho de recibir la enseñanza tanto en euskera como en castellano en los diversos niveles educativos.

A tal efecto, el Parlamento y el Gobierno adoptarán las medidas oportunas tendentes a la generalización progresiva del bilingüismo en el sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 16

1. En las enseñanzas que se desarrollen hasta el inicio de los estudios universitarios, será obligatoria la enseñanza de la lengua oficial que no haya sido elegida por el padre o tutor, o, en su caso, el alumno, para recibir sus enseñanzas.

2. No obstante, el Gobierno regulará los modelos lingüísticos a impartir en cada centro teniendo en cuenta la voluntad de los padres o tutores y la situación sociolingüística de la zona.

3. Los centros privados subvencionados con fondos públicos que impartan enseñanzas regladas tomando como base una lengua no oficial en la Comunidad, impartirán como asignaturas obligatorias el euskera y el castellano.

Artículo 17

El Gobierno adoptará aquellas medidas encaminadas a garantizar al alumnado la posibilidad real, en igualdad de condiciones, de poseer un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar los estudios de enseñanza obligatoria y asegurará el uso ambiental del euskera, haciendo del mismo un vehículo de expresión normal, tanto en las actividades internas como externas y en las actuaciones y documentos administrativos.

Artículo 18

Los planes de estudio se adecuarán a los objetivos propuestos en los artículos 15, 16 y 17.

Artículo 19

Las Escuelas Universitarias de Formación del Profesorado, adaptarán sus planes de estudio para conseguir la total capacitación en euskera y castellano de los docentes, de acuerdo con las exigencias de su especialidad.

Artículo 20

1. El Gobierno, a fin de hacer efectivo el derecho a la enseñanza en euskera, establecerá los medios tendentes a una progresiva euskaldunización del profesorado.

2. Asimismo determinará las plazas o unidades docentes para las que será preceptivo el conocimiento del euskera, a fin de dar cumplimiento a lo previsto en los artículos 15 y 16 de la presente Ley.

Artículo 21

Los alumnos que hayan iniciado sus estudios de E.G.B. fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco o aquellos que justifiquen debidamente su residencia no habitual en la Comunidad Autónoma, podrán ser eximidos de la enseñanza del euskera según el procedimiento que se establezca a tal efecto.

HIRUGARREN ATALBURUA

Euskeraren gizarte-adierazpideetango erabilkera

22garren Atala

Gizarte-adierazpideek albisteak euskeraz eta gazteleraz eman diezaizkieten duten eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei.

Horretarako Jaurlaritzak, euskera gizarte-adierazpideetan gero eta gehiago agertu dedineko neurriak hartuko ditu, hizkuntza ofizialen erabilkera arian-arian berdindu dedinera joz.

23garren Atala

Jaurlaritzak, aurreko atalak jarritako bi hizkuntzen arteko kideetasuna bermatzeko, Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera lehenengotasunez erabiltzea suzkatuko du.

24garren Atala

Jaurlaritzak, EITB-n hizkuntza arauzkotzeari bultza egingo dio, euskera, Euskal Herriaren berenezko hizkuntza denez behar bezala erabiliko dela bermatzeko.

25garren Atala

Jaurlaritzak 22garren atalean aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeagotzeko, euskal argitalpenak suzkatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, nolahi ere honako hauek euskeraren zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emanaz:

Irratian.

Egunkari eta aldizkarietan.

Zineman.

Antzerki eta ikuskizunetan.

Irudiaren eta hotsaren irazpideetan.

Horretarako, aurreko alor hoietaz ihardun eta hoiek araupetu ditzaten legetan horretazko idazpuru bat sartuko da.

LAUGARREN ATALBURUA

Euskeraren gizarte-erabilpena eta erakunde-alorreko beste alderdi batzuk

26garren Atala

Euskal Herri-agintariek euskera gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dedila suzkatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dituzte, herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolanhiko ekintzapidetan euskeraz ari daitezeneko bideak eskeintzeko.

27garren Atala

1. Euskal herri-agintariek euskera zabalkunde-ihardunetan erabiltzea suzkatuko dute.

2. Halaber, euskera-giroari indar emango diote, eta bai merkataritza, atsedenezko, kulturazko eta bazkunezko ofizialez beste nolanhiko erakundetako iragarkietan erabiltzeari ere.

CAPITULO TERCERO

Del uso del euskera en los medios de comunicación social

Artículo 22

Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a ser informados por los medios de comunicación social tanto en euskera como en castellano.

A tal efecto, el Gobierno adoptará las medidas conducentes a aumentar la presencia del euskera en los medios de comunicación social, tendiendo a la equiparación progresiva en el uso de ambas lenguas oficiales.

Artículo 23

El Gobierno promoverá el empleo preferente del euskera en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma, a fin de garantizar la equiparación de ambas lenguas establecidas en el artículo anterior.

Artículo 24

El Gobierno impulsará la normalización lingüística en los centros emisores de RTVE a fin de asegurar una adecuada presencia del euskera como lengua propia del País Vasco.

Artículo 25

El Gobierno, a fin de garantizar de forma progresiva el derecho reconocido en el artículo 22, adoptará las medidas encaminadas a la promoción y protección del uso del euskera potenciando en todo caso su difusión y posibilidades de utilización efectiva en:

La radiodifusión.

La prensa y publicaciones.

La cinematografía.

Teatro y espectáculos.

Medios de reproducción de imagen y sonido.

A tal efecto se desarrollará el oportuno título dentro de las leyes que contemplen y regulen los anteriores puntos.

CAPITULO CUARTO

Del uso social y otros aspectos institucionales del euskera

Artículo 26

Los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a los ciudadanos el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Artículo 27

1. Los poderes públicos vascos fomentarán el uso del euskera en la publicidad.

2. Asimismo, impulsarán el uso ambiental del euskera y su empleo en la rotulación de todo tipo de entidades mercantiles, recreativas, culturales y asociativas de carácter no oficial.

28garren Atala

Jaurlaritzak, euskeraren gara-adinekoentzako irakaskuntza eta euskaldunak alfabetatzea suztatuko ditu, horretarako Herri-Erakunde bat sortaraziz. Horrentzako araupeak Eusko Legebiltzarraren Lege baten bidez jarriko dira.

29garren Atala

Jaurlaritzak, euskeraren erabilpena arauzkotzeko lana errazteko, harreman-sail bat sortaraziko du, Lege hau egite-ratzeari eta osabideratzeari buruzkoetan Erakunde Berezien ahalegin eta ekintzapideak aztertzea, zedarritzea eta antolaki-detzea xede duela.

BOSKARREN ATALBURUA

Euskeraren idatzitako hizkuntza ofizial denezko erabilkera

30garren Atala

Jaurlaritza, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremu osorako idatzitako hizkuntza ofizial denez, euskeraren batasun eta arauzkotasunaz arduratuko da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diren tokietan zor zaien begirunearen kalteetan gabe.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa.—Jaurlaritza, bere agintepideen hesparruan, Autonomia-Elkartearen mugartetik kanpo ihardun eta euskerarekiko ikerlan, babes eta suztapen-ekintzapidetan ihardun dezaten iraskundeen edo agintaritzen lankide izango da, horretarako kultura-atxikipenak antolatuz.

Bigarrena.—Jaurlaritzak, Euskal Herriko gizarte-hizkuntzako egitamuketarako mapa egingo du, hori aldi-aldi Eusko Legebiltzarrari jakin erazi ondoren birrikuskatuz.

Hirugarrena.—Eusko Jaurlaritzak, horretarako gaitasuna duten ihardutze-sailekin elkar hartuta, Lege honen 6garren, 8garren, 11garren, 13garren eta 14garren ataletan araupetutakoetan, Erresumaren Euskal Herriko Autonomia-Elkartean arduralaritzan euskera arian-arian arauzkotzenagotu dedineko neurriak hartzeari bultz egingo dio.

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.—Herri-Arduralaritza berezitan Lege hau indarrean jarri baino lehen hasitako biderapen eta zehaztapidetza guztiei, hasi zireneko hizkuntzan jarraituko zaie bukatu arte.

Bigarrena.—Jaurlaritzak, tokiko herri-agintariak eskatuta, eta tokiko gizarte-hizkuntzarekiko egoerari bereziki begiratuz, Lege honetan Konstituzioaren edo Estatutoaren aginduz noraezko izan ez daitezten atalen batzuk egiteratzea aldi baterako barkatu ahal izango du, bere agintepide-eremuaren barruan.

BALIOGABETZE-ERABAKIA

Lege honetan agindutakoaren aurkako gerta daitezten maila bereko edo apalagoko agintza guztiak baliogabetuta gelditzen dira.

Artículo 28

El Gobierno promoverá la enseñanza del euskera para adultos y la alfabetización de la población vasco-parlante mediante la creación de un Ente Público a tal efecto. Mediante ley del Parlamento Vasco se regulará la normativa correspondiente.

Artículo 29

El Gobierno, con el fin de facilitar la tarea de normalización del uso del euskera, creará un órgano de encuentro, que tendrá por objeto estudiar, canalizar y coordinar los esfuerzos y las actividades de las diversas Instituciones, en lo referente a la aplicación y desarrollo de esta Ley.

CAPITULO QUINTO

Del uso del euskera como lengua escrita oficial

Artículo 30

El Gobierno velará por la unificación y normalización del euskera en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio del respeto a los diversos dialectos, parte esencial del patrimonio cultural del País Vasco, en las zonas en que son hablados.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.—El Gobierno, en el ámbito de sus competencias, establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que, actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, realicen actividades de investigación, protección y fomento del euskera.

Segunda.—El Gobierno elaborará el mapa de planificación socio-lingüística del País Vasco que será revisado periódicamente, previa información al Parlamento Vasco.

Tercera.—El Gobierno Vasco promoverá, de acuerdo con los órganos competentes, la adopción de medidas tendentes a la progresiva normalización del uso del euskera en la Administración del Estado o en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo regulado en los artículos 6, 8, 11, 13 y 14 de la presente Ley.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.—Todos aquellos procedimientos y expedientes que hayan sido iniciados en las distintas administraciones públicas con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley, continuarán hasta su conclusión en la lengua en la que se hayan iniciado.

Segunda.—El Gobierno, a instancia de los poderes públicos locales, y atendiendo especialmente a la situación socio-lingüística de la zona, podrá exceptuar temporalmente en el ámbito de su competencia, la aplicación de artículos de la presente Ley que no resulten de obligado cumplimiento por imperativo constitucional o estatutario.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la presente Ley.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau egiteratzeko eta erabiltzeko behar daitezen araupidetza-agintzak emateko eskua ematen zaio Jaurlaritzari; Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

1956

Azaroaren 24ko 11/1982 LEGEA, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen guztizko diruegitamua onartzen dituen Epaileen 24ko 3/1982 Legearen 35 eta 37.1 atalak aldatzekoa.

Euskadiko Herri osoari, Legebiltzarrak Azaroaren 24ko 11/1982 Legea, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen Guztizko Diruegitamua onartzen dituen Epaileen 24ko 3/1982 Legearen 35 eta 37.1 atalak aldatzekoa, onartu duela jakinarazten zaio. Beraz, hori bete eta betearazi dezatela agintzen diet Euskadiko herritar guztiei.

Gasteizen, 1982garreneko Azaroaren 24an.

Lehendakaria,

CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Diruegitamuei dagozkien dirubideak egiteko behin-behingo modu bat bilatzea ezinbesteko behar eta luzaezineko eginkizun gertatzen zenez gero, Jaurlaritzak, gaur Epaileen 24ko 3/1982 Lege bilakatu den Autonomia-Elkartearen 1982garreneko Guztizko Diruegitamuen Lege-Egitasmoa bidali zion Legebiltzarrari, horren 35 eta 37.1 Atalean Kondaira-Lurraldeek dagozkien diru-ekarketak egiteko modu batzuk jartzen ziren.

Lege-Egitasmo hori bere bideak egiten ari zela, eta osoko bilkurako aldian zegoela, hain zuzen, Jaurlaritzak esandako Atal hoiere aldaketa batzuk egin nahia adierazi zuen, Euskadi osoaren zuduak eta bere Kondaira-Lurraldeenak ere horrekin hobeki bermatuta gelditzen zireneko ustean.

Araudi-mailako eragozpenak zirela eta Lege-Egitasmoa onartu baino lehen aldakuntza hoiere sartzeko biderik egon ez zenez gero Jaurlaritzak, indarrean dagoen Lege-Erapidetzak aitortzen dion legegintza-arioa erabiliz, Eusko Legebiltzarrari eztabaidatu eta onar dezan aurkeztu, eta honek honako

LEGE

hau onartzen du.

Lehenengo Atala.—Epaileen 24ko 3/1982 Legearen 35garren Atala aldatu egiten da, horren ordez honako hau jarriaz:

“35garren Atala.—Kondaira-Lurraldeen 1982.eko ekonomia-urteango ekarketak.

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Diruegitamuetan eginda dauden diruizendapen guztiei erantzuteko Kondaira-Lurraldeek 1982garreneko ekonomia-urtean ekarri beharrekoak honela zehaztuko dira:

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Gobierno para dictar las disposiciones de carácter reglamentario necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley, que entrará en vigor al día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

1956

LEY 11/1982, de 24 de Noviembre, por la que se modifican los artículos 35 y 37.1 de la Ley 3/1982, de 24 de Marzo, por la que se aprueban los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1982.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 11/1982, de 24 de Noviembre, por la que se modifican los artículos 35 y 37.1 de la Ley 3/1982, de 24 de Marzo, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1982. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de Noviembre de 1982.

El Presidente,

CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Constituyendo una imperiosa necesidad, a la par que una responsabilidad inaplazable, arbitrar una fórmula provisional de financiación presupuestaria, el Gobierno remitió a la Cámara el Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para 1982, hoy Ley 3/1982, de 24 de Marzo, cuyos artículos 35 y 37.1 contemplan determinadas fórmulas de aportación de recursos económicos por parte de los Territorios Históricos.

En la tramitación del referido Proyecto, y en concreto en su fase plenaria, el Gobierno expresó su deseo de introducir determinadas modificaciones a los mencionados artículos, por entender que de esta forma se garantizaban mejor los intereses generales de Euskadi así como los propios de sus Territorios Históricos.

No habiendo sido posible por motivos reglamentarios introducir las expresadas modificaciones antes de la aprobación definitiva del Proyecto, el Gobierno, en uso de la iniciativa legislativa que el vigente Ordenamiento le reconoce, presenta para su discusión y aprobación por el Parlamento Vasco y éste aprueba, la presente

LEY

Artículo 1.º—Se modifica el artículo 35 de la Ley 3/1982, de 24 de Marzo, quedando en consecuencia sustituido por el siguiente texto:

“Artículo 35.—Aportación de los Territorios Históricos durante el ejercicio económico de 1982.

Durante el ejercicio de 1982 la aportación de los Territorios Históricos al sostenimiento de todos los créditos consignados en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco se fijará en la forma siguiente: